

## ***Microeconomics of Competitiveness* ikastaroaren beste edizio bat, enpresen eta lurraldeen lehiakortasuna hobetzeko.**

Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak *Microeconomics of Competitiveness* (MOC) ikastaroaren beste edizio bat jarri du abian. Lehiakortasuna ulertzeko ikuspegi oso bat eman nahi du, trebakuntza teknikoa ematen die parte hartzaileei, baita lanerako tresnak ere, enpresen, klusterren eta lurraldeen lehiakortasuna aztertzeke eta moldatzeko. MOC ikastaroa Harvardeko Unibertsitateko Institute for Strategy and Competitiveness erakundea zuzentzen duen Michel E. Porter jaunak zuzenduko du. Sarean eskainiko da, bost kontinenteetako nazioarteko ospe handiko beste ehun ikastegirekin sarean, eta parte hartzaileek metodologia, prozesuak eta materialak partekatzeko modua izango dute. Aurtengo edizioko berrikuntzarik nagusiena hauxe izango da: ikastaroko saio guztietan jasoko dira Orkestrak lehiakortasunaren, berrikuntzaren, klusterren eta estrategien inguruan burutzen dituen analisisen emaitzak, gure lurraldeko enpresa eta lurralde egoerara ikastaroa egokitzeke. Horrez gain, Alberto Pezzik ere hartuko du parte, irakasle gonbidatu gisa. Pezzi Competitiveness Instituteko presidentea da, lehiakortasunari, klusterrei eta berrikuntzari lotutako profesionalen sare globaleko kidea. Erakundeak beste lurralde batzuetako klusterizazio esperientziak aztertzen ditu.